

Atzerriko hamar emakume gaztetik lau ama dira; EAEko emakume gazte guztien artean, hamarretik bat

Maiatzaren 21ean Elkarrizketaren eta Garapenaren Aldeko Kultura Aniztasunaren Nazioarteko Eguna ospatzen dela-eta, [Gazteen Euskal Behatokiak](#) hainbat datu emango ditu EAEn bizi diren atzerriar gazteei buruz.


EAEn bizi diren 15 eta 29 urte bitarteko 350 atzerriar gazteri egindako elkarrizketetatik eta [Estatistika Institutu Nazionalak](#) (INE) Udal Erroldaren 2011ko urtarrilaren 1eko eguneraketatik atera dira datuok.

INERen datuen arabera, 44.559 atzerriar gazte bizi ziren 2011n, EAEn, hau da, gazteria osoaren (318.887) %14. Atzerriar gazteen artean, gizonak (22.560) %51 dira, eta emakumeak (21.999) %49 dira.

2011n, atzerriar gazteen banaketa, adinaren arabera, honako hau izan da: 15 eta 19 urte bitarteko gazteak %19 dira (8.319); 20 eta 24 urte bitartekoak, %32 (14.160); eta 25 eta 29 urte bitartekoak, %49 (22.080).

Atzerriko gazte gehien duen lurraldea Bizkaia da: 22.795 bizi dira bertan (%51). Gipuzkoan 13.098 bizi dira (%30) eta Araban 8.666 (%19).

15-29 URTE BITARTEKO GAZTE ATZERRITARRAK, LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA (ZENBAKI ABSOLUTUAK)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, INERen (2011) datuak oinarri hartuta

Datuak lurraldeka aztertuz gero, Araban dute pisu gehien atzerriar gazteek, gazteria osoaren baitan (%18). Gipuzkoan, atzerriar gazteak gazte guztien %13 dira eta Bizkaian %14.

Bestalde, **gazteria-indizea**, hau da, 15 eta 29 urte bitarteko pertsonen biztanleria jakin batean osatzen duten ehunekoa %30,7 da EAEko gazte atzerriarren artean, eta horrek esan nahi du biztanleriaren piramidea orekatuta dagoela. Balio hori EAEko biztanleria osoarenaren halako bi da, kasu horretan gazteria-indizea %14,6koa da eta.

**BIZTANLERIA ATZERRITARRAREN ETA
BIZTANLERIA OSOAREN GAZTERIA INDIZEEN
ERKAKETA, LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA**




Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, INEren (2011) datuak oinarri hartuta

Atzerritar gazteen indizearik altuena Bizkaian dago (%31,5); ondoren, Araban (%30,1) eta, azkenik, Gipuzkoan (%29,6).

EAEn bizi diren atzerriko gazteen erdiak (%46) Ameriketatik datoz; %24 Europatik; %23 Afrikatik eta %7 Asiatik.

ATZERRIKO GAZTEEN JATORRIA




Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, INEren (2011) datuak oinarri hartuta

EAEn bizi diren biztanle gazte atzerritarrak kuantifikatu eta gero, inkestaren datuak eskaintzera joko dugu, beste ezaugarri batzuk definitzeko lagungarri izango dena.

Lehenik eta behin, funtsezkoa da okupazio nagusiaren arabera banaketa. Ondoko grafikoan zera ikus daiteke: %39 ikasten ari dira, %30 lanean, %24 langabezian daude (%5ek langabezia-prestazioa jasotzen dute eta gainontzeko %19k ez), %5ek diote etxeko lanetan dihardutela, eta %2k ez dute okupazio nagusia zehaztu.

Atzerriko gazteei buruzko datuak gazteria osoarekin konparatuz gero, atzerriko gazteen kolektiboaren langabezia-proporzioa %6 garaiagoa da (gazteria osoaren langabezia-tasa %18koa da). Era berean, etxeko lanetan dihardutenen presentzia handiagoa da, eta ikasleena txikiagoa.


GAZTEEN OKUPAZIO NAGUSIA



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

Amaitutako ikasketetan ere alde esanguratsuak daude gazteria osoaren eta atzerriko gazteen artean. Atzerriko gazteen %47k derrigorrezko ikasketak amaitu dituzte (gazteria osoaren %38); %38k derrigorrezko hezkuntzaren ondoko Bigarren Hezkuntza (gazteria osoaren %31); eta %15k goi-mailako ikasketak (gazteria osoan, ordea, %31).

GAZTEEK AMAITUTAKO IKASKETAK



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia


Hilean eskura duten diruari dagokionez, atzerrian jaiotako hamar gaztetatik ia zazpik (%68) 600 euro baino gutxiago daukate hilean. Gazteria osoan, %66k 600 euro baino gutxiago daukate hilean.

Atzerriko gazteak hein handiagoan daude **emantzipatuta jatorrizko familiarik**. Gazte atzerriarren erdiek baino gehiagok (%54) diote jatorrizko familiarenaz bestelako etxebizitza batean bizi direla. Gazteria osoan, egoera horretan bizi direnak %22 dira. Atzerriko gazteen %41ek diotenez, familiarekin bizi dira (gurasoak, neba-arrebak...); gazteria osoan ehuneko hori %73koa da.

Egoera zibilean ere alde nabarmena dago gazteria osoaren eta atzerritar gazteen artean, atzerrian jaiotakoen artean ezkondu gehiago dagoelako (%15), biztanleria osoan baino (%5). Era berean, deigarria da 15 eta 29 urte bitarteko emakume atzerritarren %20 ezkondu eta egotea eta ehuneko hori %9koa izatea gizonengan.

15 eta 29 urte bitarteko emakume atzerritarren %41ek **seme-alabaren bat** dute. Gazteria osoan ehuneko hori %11 da. Beraz, agerikoa da atzerritar gazteek, gazteria-indize garaiagoaz aparte, jaiotza-tasa handitzen dutela gazteagotik.

Kultura-aniztasunak dakarren aberastasunaz gainera, atzerriko biztanleak funtsezkoak dira EAEko biztanleriaren piramidearen zahartze-prozesua konpentsatzeko eta dakartzan gizarte- eta ekonomia-ondorioak arintzeko.



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

Azkenik, EAEn bizi diren biztanle atzerritar gazteek 6,6ko **balorazio orokorra** ematen diote **euren bizitzari**, Otik 10era bitarteko eskalan. Balio hori nabarmen txikiagoa da gizonengan (6,3), emakumeengan baino (6,8). Esan beharra dago balorazio hori gazteria osoak ematen duenaren azpitik dagoela (7,2).

ATZERRITAR GAZTEEN ETA GAZTERIA OSOAREN ARTEKO ERKAKETA		
(%)	Atzerriko gazteak	Gazteria osoa
Amaitutako ikasketen maila		
Derrigorrezkoak	47	38
Derrigorrezko ikasketen ondoko Bigarren Hezkuntza	38	31
Goi-mailako ikasketak	15	31
Okupazioa		
Ikasten	39	47
Lanean	30	32
Langabezian, langabezia-prestazioa jasotzen	5	6
Langabezian, langabezia-prestaziorik jaso gabe	19	12
Etxeko lanetan	5	1
Beste egoera bat	2	2
Emantzipazioa		
Familiarekin bizi da (gurasoak, neba-arrebak...)	41	73
Jatorrizko familiarenaz bestelako etxebizitza batean bizi da	54	22
Aste bitartean ikasleen egoitza batean edo familiarenaz bestelako etxebizitza batean bizi da	1	2
Beste egoera bat	3	2
Egoera zibila		
Ezkogabea	72	86
Ezkondua	15	5
Bikotekidearekin bizitzen	10	8
Banandua, dibortziatua	7	1
Seme-alabak		
Seme-alabarik ez	59	90
Seme-alaba bat	26	7
Bi seme-alaba	11	3
Hiru seme-alaba	4	1
Hileroko diru-kopurua		
600 euro baino gutxiago	21	23
60 eta 300 euro bitartean	26	32
301 eta 600 euro bitartean	23	11
601 eta 900 euro bitartean	15	11
901 eta 1200 euro bitartean	7	10
1201 eta 1500 euro bitartean	2	4
1500 euro baino gehiago	1	3
Ed/Ee	7	6
Euskararen ahozko maila		
Oso ona	2	39
Nahiko ona	4	23
Zertxobait	13	16
Hitz batzuk bakarrik	27	10
Ezer ez	52	12
Egungo bizitzaren balorazioa (0-10)	6,6	7,2

Jarrai gaitzazu gizarte-sareetan!

